

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2338

636/2022 EBAZPENA, apirilaren 28koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, M. Aranzazu González Echave andreaki Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Basauri-Ariz Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuaren eginkizunen esleipena baliogabetzeko dena.

135/2010 Ebazpenaren bidez, M. Aranzazu González Echave andrea unitateburu izendatu zen, Basauri-Arizko Lehen Mailako Unitatean, Barrualdeko Eskualdean, Bizkaian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M. Aranzazu González Echave andreaki Basauri-Arizko Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuari dagozkion eginkizunak esleitu izana baliogabetzea, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESlan; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko apirilaren 30ean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2022ko apirilaren 28a.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.